

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko urtarrilaren 14a • V. urtea • 183. zenbakia • DOAN BANATZEKO

BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA



DEBAGOIENA

Debagoieneko
telefonoen gidak
banatzen hasi dira /4

BLANCA RONCAL / PSE-EE

*"Ibarretxe Plana deitu beharrean,
Batasunaren Plana deitu beharko
litzateke, ez delako EAJren Plana"* 17



Goienka2a

Sexualitatearen
gaineko euskarazko
webguneak



IKER BARANDIARAN

Meningitisari aurea hartu nahian

Osakidetzak oraingo astean hasi du kanpaina meningitis C gaixotasunetik babesteko txertoa jartzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan, 180.00 bat gazteri jarriko diote txertoa. Helburua da 11-20 urte arteko gazteei jartzea txertoa. Horretarako, eskolaz eskola ariko dira, baina osasun etxeetan ere bada txertoa jartzeko aukera. Debagoiengan, Arrasaten eta Bergarako hainbat eskolatan ibili dira oraingo astean Osakidetzakoak txertoa jartzen. Martxora arte iraungo du kanpainak, eta interesatuek txanda hartu behar dute herriko osasun etxean. Derrigorrezko Hezkuntza 16 urtera artekoa denez, adin horrekin ikastetxea utzi dutenei ere aukera eman nahi die Osakidetzak. /4

ASTEKO GAIA: POPULAZIO DATUAK ETA IRAKURKETA

Populazioa behera, bizi-maila gora

Debagoiendarrok gero eta gutxiago gara, eta populazioa zahartzen ari da. Horrez gain, ibarreko herri handietako jende asko, batez ere gazteak, herri txikienetara bizi izatera joaten dira, etxebizitzaren salneurri baxuagoga dela-eta.

Alde onean, baina, Debagoieneko gizarteak bizi-kalitate ezin hobea du, eta enplegua sortzen jarraitzen du ibarrak. Horiek dira INE erakundeak plazaratu berri dituen datuak eta beroien interpretazioak argitara ematen dituen konklusio batzuk. /2-3

DEBAGOIENA

Tranbiaren
proiektua ikusgai
dago udaletxeetan

Debagoieneko tranbiaren lehenengo faseari dagokion proiektua jendaurrean dago. Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta jasotzen ditu hasierako proiektuak, eta hiru herri horietako udaletxeetan ikus daitezke proiektuak. Otsailaren 15era arte herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izango dute. /4

DEBAGOIENA

Ur araztegien
lanak aurten hasiko
dituzte Debagoiengan

Mekolaldeko (Bergara) eta Epeleko (Arrasate eta Bergara) ur araztegiak egiteko lanak aurten hasiko dituzte. Bi ur araztegi horiek eraikita eta herriz herri egiten diharduten ur kolektoreko sarea amaituta, Debagoieneko ur guztiak Deba ibaira garbi isurtzea lortuko da. /5



LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:

Kataratak: Miopia / Hipermetropia.

Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatuak

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

LORAMENDI
KIROLAK

BEHERAPENAK

INTERSPORT® Arrasate

Danbakako finala gaur Elgetan

Gaurko emanaldian ezagutuko dugu Danbako lehiaketako irabazlea. Potemkin, Muted eta Sharon Stoner taldeen artean aterako da garailea. Split 77 taldeak ere joko du. /16

DANBAKA))))

Biztanle gutxiago, baina bizi-maila ona

Ibarreko gazte askok herri handiak uzten dituzte eta txikienetara doaz bizi izatera

LEIRE KORTABARRIA

Urtea bukatzerakoan, jendeak jakiteko aukera izan du iaz populazioa zelaz eta zenbat aldatu zen. Urtetik urtera, gutxika-gutxika besterik ez bada ere, Debagoieneko populazioa aldatzen joaten da, eta aldaketa horiei ondo begiratuz gero jakin daiteke gure gizartea zelakoa den eta zelaz bizi den.

Hala gertatzen da 2003ko datuekin ere, dauden azkenekin. Izan ere, horiei begiratuta, hainbat ondorio atera ditzakegu: bate-tik, Debagoieneko populazioa ez dela askorik mugitzen, bertan geratzea nahiago dugula, alegia; dauden mugimendu txikiak Debagoien barnekoak dira.

Bestetik, debagoiendarrak kanpora joaten ez diren bezala, kanpotik oso jende gutxi etorri da gurera bizi izatera. Adituen esanetan, horrek guztiak esan nahi du Debagoieneko gizarteak, oro har, bizi kalitate ona duela.

ETXEBIZITZAREN PREZIOA DELA-ETA

Espainiako Estadistika Institutuak (INE) oraintsu kaleratu ditu

populazioaren gaineko datu berrienak. Azkar ikusten da Debagoieneko joera; izan ere, populazioa jaitsi egin da nabarmen azken lau urteotan. Herriz herriko datuei begira, ikusten da Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko populazioak etengabe behera egin duela, baina Antzuola, Aretxabaleta, Aramaio eta Elgetakoa igotzen joan dela.

Horren interpretazio zentzuzkoena da herri handienetik *exodo* antzekoa dagoela herri txikiagoetara, etxebizitzaren merkatuaren prezioek bultzatuta; eta ez jaiotza tasa igo dela. Izan ere, Gipuzkoako datu bat ematearren, 2004ko bigarren hiruhilabetean aurreko urteko aldi berean baino %2 jaiotza gutxiago izan ziren; gainera, oro har, Debagoienean gero eta gutxiago izaten jarraitzen dugu.

Horrek esan nahi du Debagoieneko populazioa zahartzen ari dela, Gipuzkoa osokoa bezala. Izan ere, Gipuzkoako populazioa igo egin da azken hiru urteotan, baina, adituen esanetan, joera horrek buelta emango du, eta ez oso denbora luzean: 2010era-ko, hain zuzen ere.



ENEO AZKARATE

Gure ibarrak 700 bizilagun galdu ditu lau urtean. Herri txikietako populazioa igo egin da barne-migrazioarengatik.

JAIOTZAK

Jaiotza kopuruak behera egin du EAEn, batik bat Gipuzkoan

Eustaten arabera, 2004ko bigarren hiruhilabetean 4.908 ume jaio ziren EAEn, 2003ko aldi berean baino %2 gutxiago. Gipuzkoan ere beherakada gertatu zen: 1.738tik 1.636 jaiotzara. EAeko hiru lurraldeetatik jaiotza gutxien izan ziren gurean. Amen adina igo egin da: lau jaiotzatik hirutan amak 30 urtetik gora zituen.

ENPLEGUA

Gehiengoak industrian lan egiten duen eskualde bakarra EAEn

Debagoieneko langabezia tasa %4,94 zen urte bukaeran; emaitza bikaina, kontuan hartuta aditu askok %5 inguruko tasa hartzen dutela osoko enpleguaren adierazle moduan. Eta berezitasuna da gurea dela, EAEn, industrian lan egiten duen populazio gehiengo duen eskualde bakarra (%54,2, Eustaten arabera).

ETORKINAK


Immigrazio tasa oso baxua da; herri handienetara joaten dira

Gure ibarrean oso gutxi dira atzerritarrak (842, 2003an); hemen industria da nagusi, eta etorkinek ez dute hor lana erraz aurkitzen. 842 atzerritarretatik gehienak Arrasaten (272), Bergaran (220) eta Oñatin (196) bizi dira. Arrasaten, kolonbiarrak dira nagusi (48); Oñatin, ekuadortarrak (47); eta Bergaran, marokoarrak (30).


ZAHARTZEA

EAEn 104.000 adineko gehiago egongo da 2010ean

EAeko populazioa gero eta urriagoa eta zaharragoa izango da, Eustaten arabera. Aurreikusten da 2010ean 104.000 edadetu gehiago egongo dela, eta hazkundea oso txikia izango dela. Eustateko adituen arabera, horrek sortuko dituen premia berriak etorkin gehiago etorritara konpondu ahal izango lirateke.




GARAJEKO ATEEN AUTOMATIZAZIOA




Oinezkoen ate automatikoak










DO certificación
E.R. 02/518
ISO 9001/00
ACREDITADO POR ENAC



JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

- Garajeko atea
- Aluminiozko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak

- Urrutiko agente tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



Kataide industrialdea 18 · 110 posta-kutxa · ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 · Faxa: 943 79 08 17
jubarateak@euskalnet.net

ETORKIN GUTXI

Debagoienekoa gero eta gizarte zaharragoa da, hortaz; eta hala da, gero eta ume gutxiago jaiotzeaz gain, immigrazioa oso baxua delako. Gero eta atzerritar gehiago daude gurean, baina ez errelebu demografikorako bezain beste. Gipuzkoan, 2003an, 14.878 atzerritar zeuden, populazioaren %2 inguru. Horietatik 6.650 baino ez ziren modu legalean gure lurraldean bizi, ordea. Debagoiengan, guztira, INEren arabera, 842 etorkin zeuden bizi izaten, populazioaren %1,3. Immigrazio tasa baxua da, oro har, EAE osoan, eta oraindik baxuagoa geurean. Fenomeno hori honela azaltzen du Jesus Rodriguez Marcos soziologoak: "Debagoiengan langabezia tasa oso baxua dago; gainera, lan arlo nagusiak ez dira etorkinek lana bilatzen dutenak, ez bada etxeko lana".

Eta migrazioaz ari garenez, esan dugu ibarreko biztanleak ez direla askorik mugitzen, ez bada barne migrazio mugimendu txikietan. Hala ere, Gipuzkoan, kostaldeko herriek gero eta gehiago hartzen dituzte barnealdeko biztanleak. Debagoiengan ere bada joera hori. Hala ere, kasu horietan bigarren etxebizitza izaten da, oporretara joateko. Era berean, gero eta jende gehiagok aldatzen du etxebizitza, eta hobe batera joaten da.

Etxebizitzaren eta enpleguaren gainera datu horiek ikusita, Jesus Rodriguez Marcos soziologoaren ondorio nagusia da ibarrean bizi-kalitatea "oso altua" dela, "horregatik gero eta jende gehiagok etxebizitza hobe baten inbertitzen du", esaten du.

ELENA GALLASTEGI / DEBA GARAIA AGENTZIA

"Nork bere herrian bilatzen du etxea"

Deba Garaia etxe agentziako langile Elena Gallastegik ondo daki debagoiendarrok, aukeran, zein herritan eta zein etxe motatan bizi izaten diren. Azken populazio datuen arabera, herri handietatik txikietara joaten ari da jendea. Horretaz berba egin dugu Elenarekin.

Badirudi debagoiendarrek herri txikiagoak dituztela guttukoago bizi izateko.

Egia da ibarreko herri handietatik txikienetara mugimendua dagoela. Adibidez, Bergararik Antzuolara jende asko joaten da, eta Elgetara ere, gero eta gehiago; eta Arrasatetik Aretxabaleta aldera joan izaten da jendea, etxebizitzak merkeagoak izaten direlako. Aukeran, ordea, nork bere herrian bilatzen du etxebizitza.

Esan duzu etxebizitzak merkeagoak direla herri txikiagoetan. Zein da aldea?

Adibidez, orain azkeneko prezioen arabera, hiru logela eta bi bainugelako etxebizitza berri bat 270.500 euro inguru kostatzen da Bergaran, eta etxebizitza berak, Antzuolan, 198.000 euro inguru.

Beste fenomeno bat da barnealdetik kostaldera gero eta gehiago doala jendea. Hemen



askok eskatzen dute etxebizitza kostaldean?

Beti egoten da kontsultaren bat edo beste. Bergararik Zumaia eta Zarautz alderako joera bada, bai; baita Donostian ere. Horiek bigarren etxebizitzak izaten dira, hortaz, adin bateko jendeak osatutako bikoteek eta familiek erosten dituzte, ez jende gazteak.

Zein beste joera ikusten duzue bizilekuari dagokionez?

Herritik kanpo animatzen den jende gehiena gazteak dira; horiek beti mugitzen dira errazago. Aldi berean, bigarren esku-ko etxeak errazago erosten dituzte berriak baino. Edozelan ere, azkenaldian, etxebizitzaren prezioak horrenbeste igo direlako, ez dago salerosketa askorik.

JESUS RODRIGUEZ MARCOS / ESTADISTIKARIA

"Ibarrek ez du langile etorkina erakartzen"

Eustat Euskal Estatistika Erakundearen dihardu Jesus Rodriguez Marcos Zentsu eta Errolden Proiektu Arduraduna da urte askoan. Populazioaren gaineko informazioa interpreta du, eta bere konklusioa da Debagoiengan jendea, oro har, ondo bizi dela.



Ibarreko herri handiak husten ari dira. Zergatik?

Fenomeno unibertetsala da. Seme-alabak ezkontzen joaten dira eta euren familiak sortzen dituzte, eta gazteek joera handiagoa dute hiriguneetatik alde egiteko. Hala ere, herri handiaren populazioa jaisteak ez du esan nahi familia kopurua jaitzen denik; hortaz, familia gutxiago egoteagatik herriari dirulaguntza gutxiago ematearen politika okerra da.

Bestalde, gero eta mugikortasun handiagoa dago. Gaur egun, Gasteiz erdialdetik zein beste herri batetik joanda, berdin kostatzen da Gasteiz periferiako auzo batera iristea; hortaz, jendea ez zaio horrenbeste axola hirian bizi izatea edo kanpoan.

Gure ibarreko jendeak kostaldean etxebizitza erosteko joera ere badu.

Bai, baina bigarren etxebizitza gero eta gutxiago erosten da EAEn. Gehiago dira EAetik

kanpo erosten dutenak. Arrazoi praktikoa da: ez dago eraikitze-ko lekurik. Eta gehiago dira, baita, etxebizitzaz aldatzen direnak ere. Horrek begitara ekartzen du familia askoren bizi-kalitatea maila igo egin dela, hortaz, etxe zaharra saldu eta etxebizitza hobe baten inbertitzen dute. Komentatu dudana guztiak adierazten du 10 urte edo gehiago daramatzagula oporaldi ekonomikoan. Krisiaz asko hitz egiten da, baina gurean, enplegu asko sortzen da, hazkunde ekonomikoaren egon da...

Lana guretakeo bai, baina kanpokoendako ez ei dago.

Gipuzkoan eta Debagoiengan batez ere, lan-merkatua beteta dago, eta horko sektore nagusiek ez dute etorkinen eskulana erakartzen.

Debagoiendarrek, aukeran, gutxi mugitzen dira; gehienak ibarrean bizi dira

Ibarrean gero eta familia gehiagok inbertitzen dute etxebizitza hobe batean



Herria	2000	2001	2002	2003
Antzuola	1.896	1.900	1.911	1.946
Aramaio	1.416	1.447	1.489	1.489
Aretxabaleta	6.101	6.156	6.245	6.281
Arrasate	23.718	23.367	23.085	22.872
Bergara	15.089	15.046	15.044	14.918
Elgeta	968	973	975	1.002
Eskoriatza	3.943	3.938	3.902	3.890
Leintz Gatzaga	258	254	247	248
Oñati	10.717	10.757	10.750	10.729
GUZTIRA	64.106	63.838	63.648	63.375

BOLINTXO KIROLAK

Ibargarai 10 BERGARA

**Zapatilak
Deskontu bereziak
Txamarrak
%50erainoko deskontua**

Ez galdu aukera!

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

**Ikastaroak
Informatika
Programazioa**

AKADEMIA
BASTIDA

Pascal
Datu estruktura
Datu baseen diseinua
Cobol
C-n programazioa

943 79 35 33
bastida@bastida.es



IKER BARANDIARAN

Arrasaten 1.600 txerto baino gehiago jarriko dituzte. Eguenean Musakolako institutuan ibili ziren txertoak ipintzen.

Meningitisari aurre egiteko gazteei txertoa jartzen hasi da Osakidetza

Astean, Bergara eta Arrasateko hainbat gazteri jarri diete txertoa

MARIA AGIRRE

Aste honetan, hainbat gazteri jarri diete meningitis C gaixotasunetik babesteko txertoa. Datorren astean jarraituko dute txertaketa kanpainarekin Osakidetzakoek, eta ibarreko beste hainbat gazteri jarriko diete txertoa.

Osakidetzakoak hasi dira bailarako ikastetxeetan txertoak jartzen. Astean, Arrasaten, Institutuko ikasleei jarri diete txertoa. Gaur, berriz, Erguin Herri Eskolako 35 gaztek hartu behar zuten. Bergaran ere, Mariaren Lagundiko 285 ikasleei joan den astelehenean jarri zieten. Gainontzeko herri eta ikastetxeetara, bestalde, datorren astean joango dira Osakidetzako arduradunak txertoa jartzera. Arrasaten 1.600 txerto baino gehiago jarriko dituzte.

Osakidetzak abiarazitako kanpainaren helburua da 11 eta 20 urte bitarteko gazteak meningitis C gaixotasunetik babestea. Horretarako, ikasleek eta gurasoek gaixotasun horren inguru-

ko informazioa jaso zuten joan den abenduan. Informazioa jaso bai, baina gurasoek baimena eman behar dute seme-alabei txertoa jar diezaieten, eta izan da baimenik eman ez duenik ere.

OSASUN ETXEETAN ERE BAI

Helburua denez 11-20 urte arteko gazteei jartzea txertoa, herrietako osasun etxeetan ere bada txertoa jartzeko aukera. Martxora arte iraungo du kanpainak, eta interesatuek txanda hartu behar dute herriko osasun etxean. Derrigorrezko hezkuntza 16 urtera artekoa denez, adin horrekin ikastetxea utzi dutenei ere aukera eman nahi die Osakidetzak. Eta dagoeneko hainbat gaz-

te hurbildu da osasun etxeetara txertoa hartzera.

Une honetan, 13 gazte daude ospitaleratuta Euskadin meningitis gaitza dela eta. Horietako hiru Gipuzkoakoak dira, eta besteak Araba eta Bizkaikoak. Horietako bostek B motako meningitisa dute, eta horretarako ez dago txertorik. Gainontzekoek zein meningitis mota duten zehaztu barik dago; beraz, C motakorik konfirmatu barik dago. Iaz, hala ere, C motako 20 meningitis kasu izan ziren Euskadin, eta gehienbat gazteei eragin zien.

Meningitisa meningeen, hau da, nerbio-sistema zentrala (garuna edo orno-muina) estaltzen duen mintzen hantura edo inflamazioa da. Meningitismaren sintomak diferentek dira birala edo bakterianoa izan: gainera, gaztearen adinak ere eragiten du. Biralaren kasuan, buruko min handia, gorakoak eta sukarra dira sintomak. Meningitis bakterianoaren kasuan, buruko mina, gorakoak eta sukar altua agertu ohi izan dira. Ahulaldia eta logura ere sumatzen dira.

11-20 urte arteko gazteendako kanpaina izanik, osasun etxeetan ere bada aukera

CRISTINA

Levi's Prakak %15
Lois prakak %30
Levi's kazadorak %50
Taila solteak %50 eta %60
Izarditakoak, kamisetak %60

Arruriaga z/g (Correos parean) - Tel.: 943 76 03 04 - BERGARA

bitart

Abokatutza eta bitartekaritza
Lege arazoan konponbide
labur eta baketsuak

Larraitz Ugarte
Maidor Morras

Nafarroa etorbidea 23
ARRASATE
943 71 25 22/23
659 59 71 21

Debagoieneko ur araztegi lanak aurten hasiko dituzte

Mekolalden eta Epelen egingo dituzte ur araztegiok

ENEKO AZKARATE

Mekolalde (Bergara) eta Epeleko (Arrasate eta Bergara) ur araztegiak egiteko lanak aurten hasiko dituzte. Bi ur depuradora hauek eraikita eta herriz herri egiten diharduten ur kolektoreko sarea amaituta, Debagoieneko ur guztiak Deba ibaira garbi isurtzea lortuko da.

Mekolaldeko araztegia egiteko lanak Pridesa eta Amenabar eraikuntza enpresei adjudikatu dizkie Jaurlaritzak 11.513.000 eurotan (ia 2.000 milioi pezeta). Araztegi honek Bergara, Antzuola eta Elgetako urak garbituko ditu. Epeleko araztegia oraindik

adjudikatu barik dago, baina Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren ardura da lanok adjudikatzea. 24 milioi euro (ia 4.000 milioi pezeta) kostako da araztegi hori eraikitzea eta Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako ur zikinak garbituko ditu.

Deba ibaia da Gipuzkoako zikinena. Eskoriatzaraino nahiko garbi dago, baina hortik behera erabat kutsatuta. Denera, bost araztegi izango ditu Deba arroak: Epelekoa, Mekolaldekoa, Elgoibarkoa (36 milioi euro), Debakoa eta Mutrikukoa (45 milioi euro). Oraingo funtzionamenduan dagoen bakarra Debakoa da

DEBAGOIENEAN LABUR

Bergara, Arrasate eta Aretxabaletako udaletxeetan ikusgai tranbiaren proiektua

Debagoieneko tranbiaren lehenengo faseari dagokion proiektua jendaurrean dago. Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta jasotzen ditu hasierako proiektuak, eta hiru herri horietako udaletxeetan ikus daitezke proiektuak. Otsailaren 15era arte, herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izango dute. Udalek, berriz, bi hilabete izango dituzte.

Jon Agirre presoaren aldeko plataforma aurkeztuko dute gaur, barikua, Aramaion

Gaur, egubakoitza, Jon Agirre presoaren aldeko plataforma aurkeztuko dute Aramaion. 20:00etan izango da aurkezpena kultura etxean. Aramaion jaio zen Jon Agirre orain dela 63 urte, eta 1981a ezker dago kartzelan. Urte gehien daraman bigarren euskal preso da. Zigorren hiru laurdenak orain dela hamar urte bete zituen. Horrez gain, bere osasun egoera oso larria da.



Gudariak omendu zituzten Intxortan

Joan den urtarrilaren 2an, preso eta iheslarien aldeko urteroko Intxortarako igoera egin zuten hainbat debagoiendarrek. Hain justu ere, 100 bat lagun bildu ziren bertara, Elgeta, Bergara, Elorrio, Arrasate eta Aretxabaletatik batik bat, eta mendi ganean atzoko eta gaurko gudariak omendu zituzten ekitaldi bat egin zuten. Gudarien omenezko oroigarri bat ere jarri zuten. Ondoren, Elgetan bazkaria egon zen. Amnistia eta euskal presoak Euskal herrira ekartzea eskatu zuten, argazkian ikus daitezkeen, euripean. /GOIENKARIA

Gizarte eztabaida eta manifestazioa deitu dituzte AHTren aurkakoeak

AHT Gelditu! Elkarlanak, gainera, mozioa aurkeztuko du Bergaran

GOIENKARIA

Hainbat eragile, sindikatu eta alderdi politiko batu dira Abiadura Handiko Trenaren aurka protesta egiteko. Trenbide sarearen gaineko eztabaida egotea eskatu, eta manifestazioa deitu dute. Hilaren 29an egingo da, Bilbon.

Trenbide Sozialaren Aldeko Plataformak deitu du hilaren 29ko manifestazioa. Alderdi politikoek dagokienez, Batasuna, Ezker Batua, Aralar eta Zutik daude, eta sindikatuak: ELA, LAB, EHNE, HIRU, CGT, ESK eta EILAS. Bestalde, hainbat talde ekologista ere badira: Lurra Deialdia, Ekologistak Martxan eta Eguzki, besteak beste.

Eragile horiek guztiak hainbat bilera eskatu izan dituzte agintari politikoekin, Euskal Herriko trenbide sarearen inguruko proiektuaren inguruan hitz egiteko, baina ez dute erantzunik jaso. Hori dela eta, manifestazioa deitu dute hilaren 29rako. Bilbon, Moyua plazatik abiatuko da. Deialdia egin dutenen arabera, eragile politikoek ez dute azaldu zeintzuk diren egitasmoa sostengatzen duten arrazoi sozialak, ezta zeintzuk diren ingurumenari eragingo dizkion "kalte itzel eta onartezinak ere".



AHT Gelditu! Elkarlanak eguaztenean eman du aditzera trenaren aurkako ekimen bat.

AHT GELDITU!-REN EKIMENA

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak, berriz, beste ekimen baten berri eman du asteon. *Herriz herri: inposaketarik ez! AHTrik ez!* lelopean elkarretaratzeak eta izaera lokaleko ekintzak egingo dituzte: erakusketak, batzar informatiboak eta mozioen aurkezpena. Urtarrilaren 31n, esaterako, mozioa aurkeztu eta elkarretaratzea egingo dute Bergaran. Horrez gain, Aramaion ere egin nahi dute ekintzaren bat, baina eguna zehaztu barik dute.

AHT Gelditu! Elkarlanak tren sozialaren alde egingo den manifestazioaren gainean ere egin du berba, bereziki eurek antolatutako ekintzak eta manifestazioa "bi ekimen desberdin" direla esateko. Talde barruan Tren Sozialari buruzko askotariko iritzia daudela eta ekimen biak ez dituztela nahastu nahi azpimarratu dute. AHT Gelditu! Elkarlaneko kideen arabera, talde guztiak batzen dituen ez da Tren Soziala, AHTren egitasmoa gelditu beharra baizik.

Memesak Sein Taldea sortu du alorreko bi enpresarekin

Industri horniduran zerbitzuak hobetzea da asmoa

IRATI AGIRREAZALDEGI

Arrasateko Memesa industri hornidura enpresak Sein Taldea sortu du sektoreko beste bi familia enpresarekin. Hirurek erronka berriei modu egokiagoan aurre egiteko egin dute bat; eta helburu nagusia da zerbitzuak eskaintzean ahalik eta neurri eraginkorra lortzea.

Sein Taldean batu dira industria horniduraren alorreko hiru familia enpresa: Azpeitiko Etxeberrria, Memesa (Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin egoitzak dituen) eta Abadiñoko Lausa.

Joseba Lorenzo Sein Taldeko gerenteak aurkezpenean esan

zuen, "bezeroei zerbitzu onena emateko hiru enpresen osagarritasunak baliatuko ditugu".

Adierazi zuten baita ere Sein Taldeak familia enpresa izaten jarraituko duela hein handi batean, bigarren belaunaldiak egongo direlako ardura postuetan.

Hainbat sektore hornitzen ditu Sein Taldeak: automobilgintza, aeronautika, makina-erreminta, altzairugintza, galdaragintza eta altzarigintza. Bezeroak ere askotarikoak ditu: MCC, CIE-Automotive eta Aceralia, esaterako. Iazko fakturazioa 11 milioi euro izaitea zehaztu du Seinek.

Jaurilaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak Seinen sorrera goraiatu du.



Industria sailburua Sein Taldekoekin; ezkerretik bigarrena, Memesako Antton Azkarate.

Debagoieneko telefonoen gidak banatzen hasiko dira asteon

20.500 gida banatuko zaie, doan, GOIENKARIAren harpidedunei

GOIENKARIA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak urtero argitaratzen dituen Debagoieneko telefonoen gidak, 2005ekoak, oraingo asteon hasi dira banatzen. Guztira 20.500 ale banatuko dira ibarrean.

Hiru gida argitaratu dira: Leintz aldekoa, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio

eta Leintz Gatzagan banatuko dena (12.000 ale); Bergara aldekoa, Bergara, Antzuola eta Elgetan banatuko dena (6.100); eta Oñatikoa (3.200). Bergara aldekoa eta Oñatikoa banatuko dute lehenengo, eta aste bitan banatuta izango dira. Dagoeneko banatzen hasiak dira. Ondoren, Arrasate aldekoa banatuko dute. Gidak doan jasoko dituzte GOIENKARIAren harpidedunek eta gidotan iragarkiak jarri dituzten bezero-

ek. Herri barruan zein auzoetan banatuko dira.

Goienak urtero argitaratzen dituen telefonoen gidak dira ibarreko partikularren, profesionalen, tabernen, denden, lantegien, eta abarren informazio osatuena dakarrena. Otsail erdialderako edo gida guztiak banatuta edukitzea da asmoa. Norbaitek, hala ere, etxean jasoko ez balu, Goienaren egoitzaren batean eskura dezake.

Txandakako itxialdiak egiten dihardute ibarreko presoek

Euskal preso politikoek kolektiboak hiru hilabeteko borrokaldia hasi du Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa gainditzeko presoen aintzat har ditzatela eskatzeko, euren parte-hartzea exijitzeko eta estatus, izaera eta jatorri politikoa aldarrikatzeko. Batez ere Euskal Herrian bizi dugun une berezi eta erabakigarria izan daitekeen honetan presoek parte hartzea eskatzen dute.

Urtarril hasieran ekin zioten presoek borrokaldi horri — egun 716 dira hango eta hemengo espe-

txeetan sakabanatuta daudenak — eta hamar eguneko txandatan itxialdiak egiten ari dira. Sakabanaketa politika eta espetxeetako baldintza gogorak ere salatu nahi dituzte presoek.

Gaur, egubakoitza, bukatzen da lehenengo txanda eta Jesus Mari Zabarte arrasatearrak hartu du parte. Bestalde, gaur, lehenengo txanda amaitzearekin batera, bigarrena hasiko da, eta, honetan, Josu Uribetxebarria preso arrasatearrak hartuko dio txanda Zabarteri urtarrilaren 24a arte.

URKIOLA
Bidekurutzeta 42. 943 76 16 48
BERGARA

% 50 eraino

ANTZUOLA

Herriko haurtzaindegia hil bukaeran inauguratuko dute

Oraindik egunik zehaztu ez duten arren, Udaleko arduradunek aurreratu digute hil honen bukaeran egingo dutela Haurreskolaren inaugurazio ekitaldi ofiziala. Hantxe izango dira udaletxeko, eskolako, Haurreskolak Partzuergoko eta Jaurlearitzako ordezkariak.

Haurtzaindegia egokitzeko lanak dagoeneko bukatu dituzte, eta altzariak eta bestelako materiala jartzea besterik ez da geratzen. Gauzak horrela, otsail hasieran zerbitzu berri hori martxan jartzeko moduan egongo direla espero dute. /AINTZANE IRIZAR



ARRASATE

Kultura etxea egiteko da aurtengo inbertsiorik handiena

Udalak 37.470.035 euroko aurrekontua onartu du aurtengo jardunaldirako. Kopuru horretatik, ia 13,5 milioi inbertsioetarako erabiliko ditu; eta inbertsioen artean, kultura etxeko lanak bukatzeko erabiliko du zatirik handiena: 2.480.000 euro. Bestelako zifra batzuk aipatzearen, esan beharra dago iaz baino %17 handiagoa dela aurtengo aurrekontua. Eta Arrasateko azken eroldaren arabera, 22.887 biztanle badira udalerrian, aurtengo aurrekontuarekin, biztanle bakoitzeko, 1.541 euro gastatuko dituela; 1.283 euro jasoko dituela eta 620 euro inbertituko dituela. Berritasun moduan, esan beharra dago aurtengo oposizioak ez duela aurrekontuen kontra bozkatu; PSE-EE eta PP abstentitu egin ziren, bi alderdien esanetan, udal gobernuak jarrera positiboa erakutsi dielako. /U.M.

ARAMAIO

Aita Menniren eguneko zentrorra joateko arazoekin segitzen dute

Alkateak salatu du Arabako Diputazioak ez duela bete azaroan onartutako Arau Foral bat. Esandakoaren arabera, aramaioarrak Aita Menniren eguneko zentrorra joan zitezkeen garraio egokitua ipintzeko eskatu zuten. Diputazioarekin egon ostean, Batzar Orokorretara jo zuten hori lortzeko. Eta lortu ere lortu zuten, EAJ, EA eta PSE-EEren botoekin. Hori arautzeko Arau Forala onartu zuten. Aldiz, legeak hala agindu arren, Diputazioak ez du bete araua. Eta Aramaion garraio egokitu barik segitzen dute. /U.M.

ELGETA

Goibeko Kultura Elkarteak 50 bazkide berri egin ditu aurtengo

Bazkidetza kanpaina ipini du abian Goibeko elkarteak urtarrilean. Azken hiru urteotan 130 bazkide izan ditu elkarteak, baina kanpaina hasi denetik 50 elgetarrek eman dute izena. Helduek 35 euroren truke jasoko dute bazkide txartela; umeei, berriz, 10 euro ordainduta. Bazkideek, besteak beste, Espaloian egingo diren ekintzetarako sarrerak merkeago erosi ahal izango dituzte. Lehendik bazkide direnei, urtarrilean kobratuko zaie kuota, eta txartela Espaloian jaso beharko dute. /I.A.

OÑATI

Jarrerak hurbildu dira, baina ez dago akordiorik San Martin egoitzan

San Martin Egoitzako langileek mobilizazioekin jarraitzea erabaki dute atzo, eguna, Eulen enpresarekin batzartu ostean. Batzar horretan jarrerak hurbildu zituzten, eta langileek "enpresaren aldetik jarrera hobea" sumatu zuten, baina haien proposamena ez zen behar bezain ona, euren ustez. Horrenbestez, joan den astelehenean hasi zituzten lanuzteekin jarraituko dute –egunero 08:30etik 11:00etara bitartean–; astelehenetan auto-ilarak egingo dituzte, eta martitzenetik egubakoitzera, kontzentrazioak.

Eguneko batzarrean, hala ere, aurrerapausoak izan ziren. Lan baldintza hobekuntza eskatzen diharduten azpikontratatuak 15 langileen plataformak esan zuenez, euren proposamenetik "%80 onartu egin zuen" enpresak. Hala ere, langileek esaten dute negoziatzen jarraitu behar dela, batez ere zenbait puntutan: esaterako, borondatezko

hobekuntza delako ordain-saria erregulatzea eskatzen dute. Eztabaidatu beharreko beste gai batzuk ere badaude. Gaur, egubakoitza, batzartzeak ziren langileak gaia berriro hausnartzeko.

TRATU DESBERDINA

San Martin egoitzan azpikontratatuak dauden 15 langileek dihardute protestan. Egoitzako langileen lan berdina egin arren, gutxiago irabaztea, eta ibarreak erregimen berean dauden beste langileek baino baldintza txarragoak dituztela salatzen dute. /LEIRE KORTABARRIA

Zertzelada

Eguneko batzarrean, enpresak eskakizunen %80 onartu zuen, baina soldata eta eszedentzia gaietan, besteak beste, ez ziren ados jarri

BERGARA

Etorkinen errealitatea ezagutzeko ikerketa egin du Ongizate Zerbitzuak

Etorkinen inguruan gaur egun herrian dagoen errealitatea ezagutzeko dokumentua aurkeztu du Udalak. Integrazio prozesuan bai udalerrian bai etorkinek dituzten beharrei erantzun egokia emateko helburuarekin egin da aipatutako lana. Besteak beste, Bergaran dauden baliabideen azterketa eta atzerri-

tik etorritako populazioaren azterketa egin dute Maitte Muxika psikopedagogia ikasleak eta Jon Lopez Udaleko Gizarte teknikariak.

Biztanleriaren %4 etorkinak dira Bergaran. Etorkinen gehiengoa Europako herrialdeetatik etorritakoa da. www.bergara.es/News. helbidean eskura daiteke txostena. /E.M.



Jasotako datuen arabera, 600 etorkin inguru dira gaur egun Bergaran.

ARETXABALETA

Tranbiaren proiektua ikusgai dago udaletxean alegazioetarako

Debagoieneko tranbiaren lehenengo faseak zehazten du Bergaratik Aretxabale-tara egitea tranbia, eta Aretxabale-tara dagokion proiektua udaletxean dago ikusgai. Arrasatek San-tutxura iritsiko da tranbia, eta Otalora kalea, Durana, Mitarte eta Araba Ibilbidea zeharkatuko ditu.

Proiektua udaletxeko Hirigintza Sailean dago ikusgai, eta alegazioak aurkezteko epea otsailaren 15ean bukatuko da. Udalak, berriz, bi hilabete izango ditu. Jende askori eragingo dio tranbiaren proiektuak. /M.A.

ESKORIATZA

Aisialdi zerbitzua kontratatu gura du Udalak ludoteka eta udalekuetarako

Udalak lehiaketara atera ditu ludoteka zerbitzua eta uztaileko udalekuen antolaketa. Izan ere, orain arte Axtrokiren esku egon da ludoteka; Udalaren esku egon dira udalekuak. Lan bateratua egiteko asmoz aisialdi zerbitzua kontratatu gura du. Horretarako, 55 mila euro bideratuko dituzte. Kontratua urtebetarako izango da hasieran, eta hiru urtera luza daiteke. Otsailaren 7ra arte jasoko dituzte proposamenak udaletxean. Interesatuak informazio gehiago behar izanez gero, udaletxean argibide gehiago. /Z.V.M.

GATZAGA

Guraso elkarteak bilera egingo du gaur arratsaldean bere egoitzan

Guraso elkarteko kideek bilera egingo dute gaur, egubakoitza, 18:30ean. Besteak beste, Gabonei buruzko balorazioa egiteko elkartuko dira euren egoitzan. Baina beste hainbat gai ere landuko dituzte.

Iaz eskiatzera joan ziren, eta aurtengo ere elurretara irteeraren bat egin gura dute; hori antolatzen hasiko dira. Inauterietan ere herrian ekimenen bat egotea gura dutenez, egun hori prestatzen hasiko direla eman du aditzera Gureleko idazkari Itsaso Eginok. /Z.V.M.

PSE-EE alderdiko zinegotzia da Blanca Roncal Arrasateko Udalean, eta legebiltzarkidea ere bada. Ibarretxe Planaren harira, asteko bilerek zer emango duten eta aurrerantzean zer gertatuko den galdetu diogu, besteak beste.

OIHANA ELORTZA

Dirudienaren kontra, sorpresarik egongo da Madrilgo kongresuan Ibarretxe planaren onarpena dela-eta?

Espainiako parlamentuko bi alderdi nagusiak Ibarretxe Planaren aurka daude, eta hori arazo bat da. Euskadiko Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularra ere aurka ditu; beraz, Planaren aurka bozkatuko dute Madrilen. Horrek Planaren porrota dakar. Plana egiteko lehen pausoa euskaldun guztion adostasuna lortzea zen, baita euskal sozialista eta popularrena ere. Hori ez da horrela gertatu eta Planak ez du arrakastarik izango Madrilen. Alderdi nazionalistaren batek emango dio babesa, agian, baina ez gehiengoak.

Gainera, Ibarretxe Planak 75etik 39 boto baino ez ditu alde, eta, berez, estatutuen horrelako aldaketek legebiltzarraren hiru bostenak behar ditu. Ibarretxe Planak ere horrela eskatuko balu, ez litzateke aurrera aterako, eta, aterako balitz ere, orain duen baino babes handiagoa izango luke.

Martxoaren 8an hasiko dute prozesua?

Ez dakit, baina gutxi gorabeherako data dela uste dut. Une honetan parlamentua gelditu dago, Ibarretxe Plana ez da otsailera arte sartuko eta parlamentuak duen egutegia ikusi beharko da. Baina badirudi martxoan izango dela, bai.

Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Alderdi Sozialistak harreman onak izan dituzte beti. Orain ez?

Trantsizio garaitik, demokraziaren sorrerarekin batera, harreman ona eta emaitza onak izan dituen harremana izan dugu EAJk eta PSE-EEK. Euskadik 25 urte hauetan garapenerako eman dituen pauso garrantzitsu gehienak elkarrekin eman ditugu. Hala ere, elkarlan hau Lizarra I akordioarekin apuratu zen. Orduan, errefusatu egin zuten alderdi ez nazionalisten kolaborazioa, soilik alderdi nazionalisten arteko harremana babesteko eta euren artean eraikitzeko Euskadiko gizartea.

Lizarra II da Ibarretxe Plana?

Horrela ikusten dut nik. EAJren eta PSE-EEren arteko elkarlana lortu izan balute, askoz sostengu handiagoarekin eramango zuketena plana Madrileren. Baina hori egin ordez, alderdi nazionalisten batasuna bilatu nahi izan dute, nazionalistak ez garenak baztertu. Ibarretxe Planak akats nagusi hori dauka: Euskadi era konkretu batera eraiki nahi dutenen aldarrikapenak eta iritziak soilik batzen dituela. Horrekin, lehendakariak itxi egin ditu negoziazioaren, eztabaidaren eta adostasunaren aukerak. Egindako egitasmoak euskaldun guztion egitasmoa izan beharko luke, indar politiko guztien artean egin beharko litzateke Estatutuaren erreforma, baina Ibarretxeren egitasmoak nazionalisten nahiak baino ez ditu biltzen.

Une honetan, Ibarretxe Planak ibilbide autonomoa du eta dagoeneko ez da Ibarretxeren plana, legebiltzarrekoa baizik. Ibarretxek eta EAJk ezin dute ezer negoziatu edo ezer kendu edo sartu. Orain gerta daitekeen gauza bakarra da Madrilgo parlamentuak Plana errefusatzeko, Gas-



OIHANA ELORTZA

Blanca Roncal

PSE-EEKO LEGEBILTZARKIDEA

“Batasunaren Plana deitu beharko litzaioke, eta ez Ibarretxe Plana”

IBARRETXE PLANA ETA LIZARRAKO AKORDIOA
“Lizarrako akordioan errefusatu egin zuten alderdi ez nazionalisten kolaborazioa eta Ibarretxe Planak ere baztertu egin gaitu: Lizarra II da Ibarretxe Plana”

PLANAREN BOZKETA MADRILGO KONGRESUAN
“Martxotik aurrera esan beharko du Ibarretxek zer egin nahi duen: legeen ginetik pasa SAREN jarrera hartuz, edo legeri kasu egin, Plana erretiratu eta beste bat egin”

teizera bueltatzea eta legebiltzarrean moldatzea eta beste plan bat egitea, euskaldun guztien egitasmoak bilduko dituen plana egitea. Kasu horretan, Espainiako parlamentuan izango lukeen harrera eta babesa ezberdinak izango lirateke. Eta PSE-EE eta EAJren arteko elkarlana errazagoa izango litzateke. Hauteskundeen ondoren, PSE-EEK proposatu nahi du alderdi guztien artean egindako estatutua egitea.

Zer emango du Ibarretxeren eta Zapateroren arteko bilerak?

Zapatero ez dago ados ez Plana egiteko eta aurkezteko erarekin ezta edukiarekin ere. Ibarretxe Planak arazo juridikoak ditu: batetik, Espainiako Konstituzioan aldaketak egitea proposatzen du Plan horrek, eta, bestetik, ez du nahi Espainiako parlamentuak ematen duen iritzia onartu. Orain, ez Zapaterok ezta Ibarretxek ere ezin dute egin ezer, eta bilera horrek desadostasuna dagoela esango du eta desadostasun hori nola konpondu pentsatzeko balio izango du.

SAK esan du gaur egun badaudela baldintzak eta nahiak konponbide prozesu bat hasteko.

SAK erabateko legezotasuna du herriaren independentzia eskatzeko, eta asmo hori arazorik gabe eztabaida dezake indarkeria atzean uzten duenean. SAREN planteamenduak ezin dira inora eramanez, borroka armatua defendatzen du-eta. Bestalde, uste dut ez gaudela biolentziarik gabeko sasoi batean. Egia da ETAk ez duela atentaturik egin aspaldian, baina edozein momentutan egin dezake. Gainera, baietza eman diote eurek nahi ez duten estatutu bati. Baldintzapeko baietza eman dute, baina baldintza horiek ezin dituzte bete gainerako alderdi nazionalistek.

Zergatik bozkatu zuen baietz orduan?

25 urtean borrokatu duten helburua ezin diotelako, bat-batean, EAJri eman. Ezezkorik ere ezin zioten eman, SAREN baitan dauden herritar askok Ibarretxe Planen ikusten zituztelako euren asmoak. Izan ere, Planak Batasunaren hainbat ideia sartu ditu bere baitan. EAJk, aldiz, iruzur egin du, 25 urte hauetan izan dituen asmoak alde batera utzi eta HBrenak hartu ditu-eta. Ibarretxe Plana deitu ordez, Batasunaren Plana deitu beharko litzateke, ez delako EAJren plana.

Ibarretxe Planak aurrera egiten badu Espainiako parlamentuaren aurka, zein egoeratan egongo da Euskadi? SAK Espainiari eta Frantziari bizkarra eman nahi die. EAJk beti errespetatu baldin baditu legeak eta orain jokaera horrekin SAREN jarrera hartzen badu, zein egoeratan utziko du euskal gizartea? Horregatik, ondo dago eztabaida martxoan egitea, hortik aurrera Ibarretxek esan dezan zer egin nahi duen: legeen ginetik pasa edo horiei kasu egin, Plana erretiratu eta gizarte osoaren nahiak batzen dituen beste bat egin.

Otsailean Europako Konstituzioaren erreferenduma, martxoan Planaren bozketa Madrilen eta ondoren hauteskundeak. 2005eko agenda bete-beteta dator.

Bai. Beti bezala oso, beroa da eztabaida politikoa euskal gizartean, gauza bat ez bada, beste bat izaten dugu-eta. Gertara berriek berehala zahartzen dituzte aurrekoak, baina ideiek nahiko finko jarraitzen dute. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan, botoa oso gutxi mugitzen dela ikusten da, herri-tarra oso fidela zaio bere botoari.

Eta zer gertatuko da Batasunaren botoekin?

Batasuna bera ez da aurkeztuko. Hala ere, udal hauteskundeetan aurkeztu ziren zerrendak egin ditzakete. Hori bai, zerrenda horiek garbiak izan behar dute, zuriak, eta ez HBtik gertu daudenen edo ETA babestu duten pertsonen zerrendak. Beste izen batekin, baina ondo eginez gero, Batasunak badu aurkezteko aukera eta bere botoari eutsi diezaioke.

Bestalde, Aralar ere aurkeztuko dela uste dut, eta, beraz, aukera independentistak egongo direla iruditzen zait.

Epaitegiatar joango zarete aurrekontuen bozketan gertatutakoagatik?

Lehendabizi, salatu nahi dut legebiltzarreko presidentek ez errespetatzea legebiltzarrean zegoen kide baten boto eskubidea. Hori ez da beste legebiltzarretan gertatzen. Europako parlamentuan, adibidez, 650 kidek dute boto eskubidea, eta, akatsen bat izanez gero, bozketaren ostean akats horren berri ematen du kideak eta hori kontuan izaten da azken kontaktetan. Gainera, frogatu dugu egun hartan legebiltzarreko sistema elektronikoa ez zebilela oso ondo.

Anparo errekurtsioa aurkeztu diogu legebiltzarreko mahaiari, eta abokatuek hala baderitzote, epaitegiatar joango gara.

Gutunak

AHT: eztabaida gura dugu

Elgetatik ez da igaroko Abiadura Handiko Trena. Hala ere, *Euskal Y* izeneko egitasmo honek zeharka eta zuzenean guregan izan ditzakeen ondorioek kezka sortzen dute gure artean:

1. Ingurumenean arazo larriak sortuko ditu. Izan ere, era honetako trenek behar dituzten azpiegiturak ez dira moldatzen gure orografiara.

2. Euskal Herrian ditugun garraio arazoak ez ditu konponduko, ez merkantzien garraioari dagokienak, eta ezta pertsonok ditugun beharrei dagokienak ere.

3. Gure lurraldea zatikatuko du. Tren honek hiriak lotzen ditu, baina herriak, berriz, zatitu eta urrundu.

4. Arazo ekonomikoak ekarriko ditu. Dirutza ikaragarria eskatzen du egitasmoak. Gure lurraldeak beharrezkoak dituen inbertsioak hipotekatuko ditu.

Gure iritzia AHTren aurkakoa den arren, gure herrian egitasmo honen gaineko eztabaida zabaltzen saiatu gara, egitasmoaren inguruan dauden iritzi eta argumentu desberdinak kaleratzen, herritarrei informazio zabaltzen...

Proiektuaren alde dauden herriko alderdiei, EAJ eta EAKoei, eskatu diegu laguntza. Gure asmoa alde eta kontrako iritziekin eztabaida publiko bat egitea zen. Baina ezinezkoa egiten ari zaigu proiektu honen alde dagoen inor eztabaidarako prest aurkitzea.

Elgetatik, eztabaidarako eta elkarriketarako gonbita luzatu nahi diegu egitasmo honen alde daudenei. Administrazioak eta egitasmo honen bultzatzaileek orain arte isilarazi duten eztabaida Euskal Herriko txoko guztietara zabaltzea gurako genuke.

GAZTETXEA, MAYA INGURUMEN
TALDEA, AUZOLANIAN ETA ARALAR
Elgeta

Martin Roman gogoan

A benduaren 9an Miranda de Ebron Roman Cordero zendu zen 86 urte zituela; Martin frankismoaren kontrako borrokalari historiko bat zen.

18 urterekin Bigarren Errepublika defendatzera joan zen boluntario moduan eta Alderdi Komunistan sartu zen. Orduetik hona, bizitza osoa eman zuen Sozialismoaren eta langileen aldeko borrokan.

Gerra Zibila hasi zenean, 1936ko uztailean, errepublikar-milizietako kide bezala, Badajoz, Toledo (Los Palos Mendia) —non metrailladore Tenientea zen— Madril eta Ekialdeko borroketan jardun zuen. Gerra ostean, herrira itzuli eta atxilotu, espetxeratu eta zigor heriotzara kon-

denatua izan zen, nahiz eta zigor hau biziarteko kartzela-zigorarekin konmutatu zioten. Urte batzuk Formentera, Alcoy eta Azeuchal bere jatorrizko herrian igaro ondoren, aske utzi zuten 27 urterekin.

Ezkondu eta hiru hilabetera berriz atxilotu zuten. Familiak ez zuen bere berririk izan Almendralejon eduki zuten 7 hilabeteetan. Ondoren, Rucara joan zen familiarekin batera, hemen, gazteei gaueko klaseak eman zizkien eta jorنالarien mobilizazioetan parte hartu zuen; arrazoi honengatik 60ko hamarkadaren hasieran bere herrira erbesteratu zuten, baka- rrik, familiatik 100 kilometrora.

Bergarara 1965ean etorri zen, erai- kuntzan lanean jardun zuen eta Langile Komisioetako borroka klandestinoan murgildu zen, non, zorionez, ezagutu baike- nuen. Geroago, Santa Lucia eta Ocaso ase- guretuan lan egin zuen jubilatu zen arte. Orduan ere, egunero joaten zen sindika- tuko lokalera bere laguntza ematera.

Romanen adiskidetasunarekin dis- frutatu genuenok ez dugu ahaztuko nola heltzen zion lanari, gorputz eta arima, ekitaldi guztietan agertzen zuen xume- tasuna eta zuhurtasuna, justiziarik gabe- ko mundu militarizatu hau ukatzerakoan agertzen zuen indarra; ez, ez dugu Roman inoiz ahaztuko.

Azkenera arte eutsi zion bere ideie- kiko leialtasunari, Don Beniton, Inter- nazionala kantatu zioten eta tinko defen- datu zituen banderekin lurperatu zuten: Errepublikakoa eta Gorria.

JUAN JOSE AZKARATE JAUREGI ETA
RAMON ROMERO BARCALA
Bergara

Ion Agirre Euskal Herrira!

Ion Agirre Agiriano, *Azpiko*, 63 urte; Aramaioko seme eta Arrasateko herri- kidea, oso gaixo dago, Malagako espe- txeko erizaindegian.

1981ean izan zen atxilotua. Orain arteko kartzela zigor guztia Euskal Herri- tik, gutxienez, 1.000 kilometrora bete behar izan du, legeak aitortzen dizkion eskubideen aurka.

Kartzela barruan, gose grebak, zie- gako bakardadea, bizi baldintza eta osa- sun zerbitzu oso eskasak, preso "arris- kutsu" gisa, lehen graduan sailkatua, etengabeko zigor gehigarria jasan beha- rrean aurkitu izan da, espetxean dara- matzan ia 24 urte luzeetan zehar.

Ezarri zioten kartzela zigorraren 3/4ak duela 10 urte beteta dauzkan arren, ez diote askatasunik ematen. Berarekin batera zigor bera jaso zutenak kalean dira. Mendeku gordinena ezartzen dio- te, inongo gizatasun eta oinarri juridi- korik gabe.

Orain arte, bere osasun arazoak erdi isilpean gordetzen saiatu da, bai- na azkenean, hain baldintza gogorrek bere osasuna erabat hondatu diote: hipertentsio arteriala, hiperkolestero- lemia, II. tipoko diabetes mellitusa, L4- L5 bertebrak txikituta, artikulazio sakroilikoa ankilosatu, mokorrean, bizkarrezurrean eta belauetan, artror- sia, eta honek guztiak infartua izateko arrisku larria sortzen dio. Ebakuntza egin ahal izateko, hilabeteak egon da erresonantzia magnetiko baten zain. Etengabeko minak ditu jada, gorputz osoan, ezin ibili ahal izateraino. Ondo- rioz, bisita gehienetara ezin izaten da atera, kartzela barrutik beharrezko duen laguntza ematen ez diotelako, beretzat eta bere sendiarentzat, zigorrik latzena ezarri.

Giza Eskubideen urraketa hain nabarmenaren aurrean, ezin gara isilik eta geldirik egon. Ion Agirre Euskal Herriko espetxe batera ekarri beharra dago, konfiantzako sendagileen asis- tentzia eduki dezan; berandu izan bai- no lehen.

Ionek kalean egon behar luke, bai, baina, areago oraindik, bere osasuna zaindu ahal izateko eskubide osoa du eta ukatu egiten diote. Egoera benetan da larria.

Debagoieneko herritarrek beti jakin izan dute horrelako egoeretan erantzun- a ematen; lerro hauetatik, egin deza- kedan deirik sarkorrena luzatu nahi dizuet, denoi, helburu honekin antola- tuko diren agerraldi guztietara etor zai- tetzen. Hau ez da gorabehera ideologiko edo politiko bat, besterik gabe. Gizata- sun kontua da.

Gatazka gainditzeko ahaleginean, baldintza berriak eta esperantzarriak sortzen ari diren honetan, zapalduta daudenen eskubideak aldarrikatzea denok egin behar dugun ariketa da. Egin dezakeguna eta ustekabeko eragin posi- tiboan izan dezakeena. Pilo handia egite- ko, bakoitzak ipin dezakeen hondar ale- txoa. Egiatzko bakearen bila, eman deza- gun urrats hau; aurrera jarraitzeko aukera berrien bila.

Larri dagoelako, Ion Euskal Herrira! Eskubidea duelako, Ion Euskal Herrira!

XABIER ZUBIZARRETA LASAGABASTER
Arrasate

Estatus politikoa onar dakien borrokan

Gaur egun 716 dira munduko espe- txetean sakabanatuta ditugun euskal preso politikoa. Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoa eragindako presoak dira eta jasanezinak diren bal- dintzetan geroz eta luzeagoak diren espe- txez zigorrek betetzen ari dira.

Euskal herritar hauek bi estatu zapal- tzaileen aurrean Euskal Herri aske, eus- kaldun eta baketsu baten alde lan egitea dute delitu. Arazo politiko honen baitan, erasoan aurrean gure herria defendatu eta bere nortasuna babesteagatik daude dauden lekuan. Horregatik dira preso politikoa. Bere izaera behin eta berriz ukatu dioten herri bateko seme-alabak dira eta politika errepresiboari pare pare erantzun diote.

Herri mugimenduko alor desberdine- tan makina bat lan egindakoak dira: eus- kalgintzan, euskal nortasunaren alde, pre- soen eskubideak defendatzen, bizi bal- dintza duinen alde, komunikabide euskaldunak aurrera ateratzen, gazteen eskubideen alde eta errepresio kamaleo- nikoari aurre eginez beti. Horregatik, hain zuzen, isolatzen eta sakabanatzen dituzte beren jatorritik. Herri honen eraikuntza- ren erreferentzia ukazina direlako, eta halako erreferentziek bizirik dagoen gizar- te honi arnasa ematen diotelako. Horre- gatik ukatzen diete beren izaera politikoa eta gaizkile bihozgabe bailira irudikatu. Jipoiak, komunikazio murrizketak, zigo- rrak..., eta haien senideak ehunka kilo- metro egitera kondenatzen dituzte astero.

Duintasunaren adibide latzena dira. Latzena, bai, jasanarazten dizkieten bal- dintzetan ere gogor jarraitzen dutelako herri honi dagozkion eskubideen alde borrokan.

Euskal herritarrok gure etorkizuna erabakitzeke ueña heldu den honetan, lotsagarria litzateke gatazkan hain kon- prometituta dauden 716 preso politikoa- k, iheslariak, errefuxiatuak eta depor- tatuak alboratuta uztea. Hori da, zehaz- ki, espainiar eta frantziar estatuek dispertsioaz lortu nahi dutena.

Urtarrilaren 4an euskal preso poli- tikoek hiru hilabeteko borrokaldi bat hasi zuten eta hamar eguneko txandetan txapeoak egiten ari dira. Berriz ere saka- banaketa politika ankerraren eta espe- txetako baldintza gogorren gainetik sekulako esfortzua egingo dute ukatzen zaien izaera edo estatus politikoa onar dakien.

Gaur bukatzen da lehenengo txanda, bertan Jesus Mari Zabarte arrasatearrak hartu du parte eta gaur Josu Uribetxe- barriak hartuko dio txanda urtarrilaren 24a arte.

Gatazkaren konponbiderantz bene- tako pausoak emango baditugu, begi bis- tan dago euskal preso politikoa Euskal Herrira ekarri behar ditugula. Legez hala dagokielako eta bizi dugun proze- su politikoa esku hartzeko eskubide osoa dutelako. Joan zen larunbatean aspaldian euskal presoak Euskal Herri- ratzearen alde egin den manifestaziorik handiena burutu zen Bilbon. Ez ditzala haizeak hango aldarrikapenak eraman! Lana eginaz lortuko dugu: euskal presoak Euskal Herrira!

DEBAGOIENENKO ASKATASUNA
Debagoiena

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Aurrezki Gorakorra

EUSKADIKO KUTXA

Bosgarren urtean

%4,75

Utzi interesei
goraino heltzen

Laugarren urtean

%2,75

Hirugarren urtean

%2,50

Bigarren urtean

%2,25

Lehen urtean

%2,00

**%
UTB 2,70**

5 URTERAKO GORDAILUA
3.000 EUROTIK GORA
ERABILGARRIA

Iban Mayo: "Ez dut ikusten aurtengo Tourra Armstrong barik"

Martitzen arratsaldean egon ziren Euskaltelekoak Astoren

XABIER URTZELAI

Aurre-denboraldian murgilduta egonda ere, beti dago etxe laguntzaileei keinu bat egiteko tartea. Euskalteleko Euskadiko taldea Arrasaten izan zen martitzen arratsaldean, Astoreren lantegia bisitatzen. Hori bai, Arrasatera etorri baino lehen entrenatzen izan ziren guztiak.

Euskaltelekoak ez daude denbora galtzeko moduan, eta ondo daki hori taldeko presidente Miguel Madariagak. Goizean Tolosa inguruan izan ziren Etxe-Ondo lantegia bisitatzen, eta arratsaldean etorri ziren Arrasatera. Bi bisita horien artean, baina, ziklista guztiak izan zuten entrenamendu saioa.

Astoren egin zuten egonaldian, lantegikoek arropak nola egiten dituzten erakutsi zieten. Prozesu osoa, gainera: diseinutik hasi eta josten duten artekoa.

Arropez gain, baina, GOITBko lankideek izan zuten hainbat protagonistarekin berba egiteko aukera. Iban Mayo izango da



DEIANE ARRIETA

Euskalteleko Euskadiko taldea, Astorek Arrasaten daukan lantegiaren aurrean.

Tourrean taldeko buru, eta argi dauka Armstrong bertan izango dela: "Ez dut ikusten aurtengo Tourra Armstrong barik, seguru lasterketan izango dela. Ez badator, berriz, lasterketa irerkiagoa izango da, ez da faborito

argirik egongo". Markel Irizar oñatiarrarekin ere izan ginen: "Aurtengo Euskadiko Itzuliko lasterketa bat Oñatin amaituko da, eta Madariagak eta Gorospek badakite etxean korritzea ametsa dela niretako".



Arrasateko eta Aretxabaletako taldeak Euskadiko xakearen gailurrean

Bihar hasiko dute aurtengo Xakeko Euskal Liga eta Euskal Herriko hamar taldeen artean izango dira Arrasateko San Andres eta Aretxabaletako Arlutz taldeak. Bi talde horiek Ohorezko Mailan jokatuko dute. Arrasatek joan den urtean eskuratu zuen Euskadiko gorengo mailan jokatzeko txartela, eta Arlutzek, berriz, ondo eutsi zion kategoriari. Aurten, punta-puntako hamar talde izango dira lehian, eta lehenengo sailkatua Espainiako Txapelketarako sailkatuko da. Azken hirurak, berriz, mailaz jaitziko dira.

gasteizon

centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU

www.gasteizon.com

2005EKO URTARRILAREN 14tik 20ra

Florida  Guridi

CINES GURIDI ZINEMAK

"ALEJANDRO MAGNO" (13tik behera ez da gomendagarria)
ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 17:30etan eta 21:00etan/IGANDEAN: 17:00etan eta 20:30etan
"POLAR EXPRES" (guztientzat)
OSTIRALETIK IGANDERA: 17:00etan
"EL FANTASMA DE LA OPERA" (7 urtetik behera ez da gom.)
OSTIRALETIK IGANDERA: 18:45ean eta 22:00etan
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 17:30etan 20:30etan
"UNA SERIE DE CATASTROFICAS DESDICHAS DE LEMONY SNICKET" (7 urtetik behera ez da gomendagarria)
OSTIRALETIK IGANDERA: 17:30etan eta 20:00etan
"BRIDGET JONES SOBREVIVIRÉ" (13 urtetik behera ez da gom.)
OSTIRALETIK IGANDERA: 22:30etan
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan
"14 DIAS DE VIDA" (Sailkatzeko) ESTREINALDIA
ORDUTEGIA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan (egunero)
"LOS INCREIBLES" (guztientzat)
OSTIRALETIK IGANDERA: 17:00etan eta 19:45ean
"OCEAN'S TWELVE" (13 urtetik behera ez da gomendagarria)
ASTELEHENETIK ASTEAZKENERA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan
OSTEGUNETAN: 17:30etan eta 20:00etan/OSTIRALETIK IGANDERA: 22:30etan
"OBSESION" (13 urtetik behera ez da gomendagarria)
OSTIRALETIK IGANDERA: 17:00etan, 19:45ean eta 22:30etan
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan
"EL AVIDADOR" (Sailkatzeko) ESTREINALDIA
ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 18:00etan eta 21:15etan/IGANDEAN: 17:15etan eta 20:30etan

Florida  Guridi

CINES FLORIDA - GURIDI ZINEMAK

"LOS CHICOS DEL CORO" (guztientzat)
ORDUTEGIA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan (egunero)
"DOPIO MEZZANOTTE (DESPUES DE MEDIANOCHE)" (13 urtetik behera ez da gomendagarria)
ORDUTEGIA: 17:30etan eta 20:00etan (egunero)
"EL MAQUINISTA" (18 urtetik behera ez da gomendagarria)
ORDUTEGIA: 22:30etan (egunero)
"TEMPORADA DE PATOS" (Sailkatzeko) ESTREINALDIA
ORDUTEGIA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan (egunero)
"SOLO UN BESO" (Sailkatzeko) ESTREINALDIA
ORDUTEGIA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan (egunero)
"CONVERSACIONES CON MAMA" (Sailkatzeko) ESTREINALDIA
OSTIRALETIK IGANDERA: 17:00etan, 19:45etan eta 22:30etan
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan
"LA IMPORTANCIA DELLAMARSE ERNESTO" (guztientzat)
OSTIRALETIK IGANDERA: 17:00etan, 19:45etan eta 22:30etan
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan
"WHISKY" (13 urtetik behera ez da gomendagarria)
OSTIRALETIK IGANDERA: 17:00etan, 19:45etan eta 22:30etan
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 17:30etan, 20:00etan eta 22:30etan

Kultur Agenda

URTARRILAK 15, larunbata


IPUIN KONTALARIA
Iñaki Carretero / 18:30 / Falerina lorategia
FLAMENKOA • Chano Lobato
20:30 / Jesús Ibáñez de Matauco antzokia (Hegoalde gizarte-etxea) / Sarrera: 10 € / Abonua, 6 ikuskizun: 40 €
MUSIKA
Gauekoak: SKATE-GAUA. Skate-Pista, Hip-Hop REKIEM taldearekin, Graffiti.
20:00-20:00 / Judimendi gizarte-etxea / Sarrera doan.
MUSIKA
Matthew Sweet.
Gauean / Azkena Gasteiz aretoa (Andre Maria Zuriaren Koroatzearen kalea).

URTARRILAK 18, asteartea

MUSIKA
Astearte Musikalak: Perico Sambeat, Daniel Yacaré, Pablo Martín eta Borja Barrueta (Jazza).
20:00 / Vital Kutxa Fundazioaren aretoa (Dendaraba)
Sarrera: 3,80 €



*“Beherapenak?
Ziur beherapenak
ikusten dituzula?”*



Beherapen-grina
Ezingo duzu beste ezertan pentsatu

Zaramaga kalea, 1. 01013 Gasteiz. Tel.: 945 15 54 40. www.el-boulevard.com


el Boulevard
Begirada guztien Gunea

GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2005



GRUPO RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

ETXE MOBEL
MUEBLES

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



GRUPO RKUZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
FAGOR

Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA

GRUPO RKUZ
ELEKTROGAILUAK

Andramari auzunea
expert

Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 14a

Kultura
eta
aisialdia



Urtarrilaren
14tik 21era



www.sexologiazerbitzua.com

Arrasateko Sexologia Zerbitzuak webgune berria du: sexuaz hitz egiteko modua, Interneten eta euskaraz /15



Aro berria, erakusketa berria.



Amillaga 10
BERGARA
943 76 03 30



LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROK
Epea: 05 urtarrila – 05 ekaina 100% Diru laguntzak

IKASTAROA	ORDUAK	DATAK	ORDUTEGIA	IKASTAROA	ORDUAK	DATAK	ORDUTEGIA
AUTOMATISMOAK				SOLDADURA			
C.N.C. Tornuaren Programazioa	40	05/01/17 – 05/02/03	17:00 – 20:30	Elektrodo estali Bidezko Beste Posizio Batzuetako Soldadura	80	05/01/10 – 05/02/14	16:30 – 21:00
C.N.C. Tornuaren Prestaketa eta Programazioa	40	05/02/14 – 05/03/08	18:00 – 21:00	Posizio Horizontaleko MIG/MAG Soldadura	50	05/02/16 – 05/03/07	16:30 – 21:00
C.N.C. Fresatzeko Makinaren Programazioa	46	05/03/14 – 05/04/21	18:00 – 21:00	Beste Posizio Batzuetako MIG/MAG Soldadura	50	05/03/09 – 05/04/11	16:30 – 21:00
C.N.C. fresatzeko Makinaren Prestaketa eta Programazioa	46	05/04/26 – 05/05/24	18:00 – 21:00	Posizio Horizontaleko MIG/MAG Soldadura	50	05/04/13 – 05/05/03	16:30 – 21:00
C.N.C. Fresatzeko Makinako Mekanizazioa	50	05/04/18 – 05/05/17	18:00 – 21:00	Posizio Horizontaleko TIG Soldadura	50	05/05/09 – 05/05/25	16:30 – 21:00
PLCak (Automata Programableak)	60	05/04/18 – 05/05/18	17:00 – 20:30	Elektrodo estali Bidezko Angeluko Soldadura	80	05/05/30 – 05/06/24	17:00 – 21:00
Roboten Programazioa	20	05/02/21 – 05/03/01	17:00 – 20:30	Soldadurako Beste Prozedura Batzuk	35	05/05/09 – 05/05/26	17:00 – 20:00
Robotika	20	05/03/07 – 05/03/17	17:00 – 20:30	Soldaduraren Ikuskapena	50	05/04/13 – 05/05/12	17:00 – 20:00
Automatismo Hidraulikoak	36	05/01/24 – 05/02/16	17:00 – 20:30	Materialen Soldagarritasuna	50	05/02/16 – 05/03/16	17:00 – 20:00
DISEINUA				ELEKTRIZITATEA eta ELEKTRONIKA			
CAD. Metal Eraikuntzen Irudikapena (AUTOCAD 2005)	60	05/01/17 – 05/02/15	16:30 – 20:30	Etxebizitzaren eta Merkataritzako Lokalen Barruko Instalazioak	60	05/01/10 – 05/02/16	17:00 – 20:00
CAD. Metal Eraikuntzen Irudikapena (SOLID WORKS)	60	05/02/21 – 05/03/16	16:30 – 20:30	Eraikineko Instalazioak	50	05/02/21 – 05/03/17	17:00 – 20:00
Metal Egituren Irudikapena	40	05/02/21 – 05/03/10	17:00 – 20:30	Soinu-Instalazioak	70	05/04/04 – 05/04/29	17:00 – 20:30
CAD. Metal Eraikuntzen Irudikapena (SOLID EDGE)	60	05/04/04 – 05/04/27	16:30 – 20:30	Muntatzea eta Mantentzea	80	05/05/03 – 05/06/02	17:00 – 20:30
CAD. Metal Eraikuntzen Irudikapena (SOLID EDGE)	60	05/05/03 – 05/05/26	16:30 – 20:30	Telebista-Seinaleak banatzeko Sistemak Muntatzea eta Mantentzea	80	05/05/03 – 05/06/02	17:00 – 20:30
Galdaragintza Gorputzen eta Garapenen Irudikapena	60	05/01/17 – 05/02/17	17:00 – 20:30	METROLOGÍA eta ENTSEIUAK			
Galdaragintza eta Marrazketako Garapenak	60	05/04/04 – 05/04/27	17:00 – 20:30	Saiakuntza Suntsitzaileak eta Ez- Suntsitzaileak	40	05/01/24 – 05/02/24	18:00 – 20:30
Galdaragintza eta Egituren Planoak Interpretatzea	60	05/05/03 – 05/05/26	17:00 – 20:30	Teknika Metrologikoak eta Kalibraketakoak	50	05/03/07 – 05/04/21	18:00 – 20:30
AUTOMOZIOA				GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOETARA SARRERA			
Eskema Elektrikoak Interpretatzea	40	05/04/04 – 05/04/18	17:00 – 19:30	Gaztelania	90	05/01/17 – 05/05/13	16:00 – 20:00
				Matematika	90	05/01/17 – 05/05/13	16:00 – 20:00
				Ingelesa	90	05/01/17 – 05/05/13	16:00 – 20:00

IZEN EMATEAK: Aretxabaletako Institutua, Etxebarri auzoa, z/g. Telefonoa: 943 79 79 00



INTERNET/ SEXUALITATEAREN GAINIKO GERO ETA EUSKAL WEBGUNE GEHIAGO DAGO

Sexologia Zerbitzua, sarean

ARRASATEKO SEXOLOGIA BULEGOAK WEBGUNE BERRIA DU, ETA PARTE HARTZEKO AUKERAK EMATEN DITU


LEIRE KORTABARRIA

Euskaldunok ez ei gaude oso ohituta sexu gaiez berba egitera. Beharbada, hori aldatzen lagunduko du Internetek. Oraindik euskarazko webgune gutxi dago gai hori modu interaktiboan lantzeko, baina gero eta gehiago dira. Oraintsu, Arrasateko Sexologia Zerbitzuak ateratu du berea.

Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak webgune berria plazaratu du, gogoratzeko izen erraza duena, gainera: www.sexologia-zerbitzua.com. Izatez, Interneteko webgune eta web orri asko dago sexu kontuak lantzeko; baina askoz ere gutxiago dira interaktiboak. Hain zuzen, mota horretako lauren berri jaso dugu. Arrasateko Sexologia Zerbitzuarena da zerrenda horretan berriena.

PARTE HARTZEKO LEKUA

Webgune banaka horien berezitasuna da interaktiboak direla, eta, hala, erabiltzaileak parte har dezake. Beste webguneetan, arrakasta handia izan du interaktibotasun elementu horrek; eta, nahiz eta oso berria izan, Arrasatekoan ere hala izaten ari da: "Dagoeneko jaso ditugu galdera eta komentario batzuk *Kontsul-*



Sexualitatearen mundu aberats eta zabala miatzeko aukera bat, Interneten.

tak atalean, bai. Orain arte e-postaz jasotzen genituen, eta orain beste modu bat dute erabiltzaileek guregana zuzentzeko", azaltzen du Arrasateko Sexologia Zerbitzuko arduradun Larritz Arandok. Horrez gain, argitaratzen diren hainbat berriren gainean komentarioak bidal daitezke, argitaratzeko.

Arandoren esanetan, Internetek bi arrazoiengatik erakartzen ditu gero eta gehiago zerbitzuko erabiltzaileak: "Anonimotasuna eskaintzen du; bestetik, Internet gero eta sarriago erabiltzen dugu eguneroko bizitzan, eta tresna praktikoa da".

Hala ere, Arrasateko zerbitzuaren webgunea ez da bakarrik galderak botatzeko lekua, zerbitzua jendearengana hurbiltzeko beste bide bat baizik. Orain azkeneko, *Zein da zure erotika?* kanpaina hasi dute, eta horren berri ematen dute webgunean. Beste atal interesgarri batzuk ere badaude.

ANONIMOTASUNA LAGUN

Internetek ematen duen anonimotasunak lagundu dio askori sexualitatearen gainean berba egitera ausartzeko. Hala dio, behintzat, *Gaztesareak.net* webguneko *Gozategi* sexologia sailko arduradun Joana Etxebarriak: "Euskaldunok ez dugu sexuaz berba egiteko ohiturarik, ez bada oso gaitetik. Horregatik, oso pozik gaude gure webguneko erabiltzaileen harrerarekin. Jendeak askatasunez hitz egiten du bere esperientzietaz, lehen ausartzen ez zen galderak egiten ditu...".

Arrasatekoan, bost atal

NON ETA NOIZ

Arrasateko bulegoa non dagoen, ordutegia, harremanetarako telefonoa...

KONTSULTAK

Sexualitatearen gaineko galderak, kezka... bidaltzeko tresna. Formulario eran eginda dago; hortaz, hutsuneak bete eta bidali besterik ez dago.

GOZAMENEZ GOZATU

Sexualitatearen gaineko artikuluak biltzen dira.

BERRIAK

Sexologia Zerbitzuaren jardunaren inguruko albisteak eta abisua biltzen dira.

LOTURAK

Sexologiaren inguruko beste gune batzuetarako loturak.

Beste euskal webguneak

Euskarazko webguneen bidea urratzen hasi ziren honakoak izan ziren: *Gaztesarea.net*-eko *Gozategi* atala (www.gaztesarea.net/gozategi); hor, azpisail bat estreinatu zuten iaz, Izarapeko Aholkuak, eta horixe da jendeak sexu kontuak eztabaidatzeko erabiltzen duena. "Jendeak ez du galdetu bakarrik egiten, euren erantzun dezakete, euren esperientziak kontatu...", dio Joana Etxebarria arduradunak.

Arrakasta handia du baita *Ikusgela* telebista saioaren webguneko sexualitate atalak: (www.ikusgela.com-en duzue). Han, astero gai bat lantzen da, sexologo batek kontsultak erantzuten ditu...

Azkenik, *euskadi.net*-ek honako webgunea du: www.euskadi.net/r58-2250/eu/contenidos/informacion/salud_asexorate/eu_1770/salud_asexorate_e.html.

Danbaka: Publikoaren Saria

Gaur, hiru finalistek jo ostean itxiko da mezuak bidaltzeko epea. Bien bitartean: danbaka [laga tarte] taldearen izena eta bidali 7744 zenbakira. SMSaren kostua 0,90 euro+BEZ

- 1 **ENBOSKADA**
ARRASATE
Botoen %21,6
- 2 **DENIAL**
ARRASATE-ARETXABAETA
Botoen %18,2
- 3 **LOS CRETINOS**
ARRASATE
Botoen %9
- 4 **STUKAS**
BERGARA
Botoen %8,4
- 5 **OZEN**
ARRASATE
Botoen %5,7
- 6 **AMONAL**
ONATI
Botoen %5,6
- 7 **MALENKONIA**
ONATI
Botoen %4,9
- 8 **POTEMKIN**
ONATI
Botoen %4
- 9 **ISAREVOLUTION**
ARRASATE-ESKORIATZA
Botoen %3,2
- 10 **SHARON STONER**
ONATI
Botoen %3,2
- 11 **JIM TNT**
ARRASATE
Botoen %2,5
- 12 **IZAS**
ELGETA
Botoen %2,7
- 13 **SUPERCOOLS**
BERGARA
Botoen %2,6
- 14 **MATXURA**
ELGETA-SORALUZE
Botoen %2
- 15 **DIXIE 900**
BERGARA
Botoen %1,9
- 16 **N OPH**
ARRASATE
Botoen %1,4
- 17 **OSTIADA OI!**
ELGETA-ARRASATE-BERGARA
Botoen %1,4
- 18 **TURBOAMOR**
ARRASATE
Botoen %0,7
- 19 **NEURE BAITAN**
ARRASATE
Botoen %0,6
- 20 **MUTED**
ARRASATE-ABADIÑO
Botoen %0,4

DANBAKA))))

DANBAKA))))

DEBAGOIENENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Ez ahaztu, astelehenean, Goienkaria!

Asteleheneko Goienkaria-n Danbakako finalaren gaineko informazio osatuena, zortzi orrialdetan: kronika zabala, argazkiak, iritziak, irabazleei elkarrizketa, lehiaketan parte hartu duten talde guztien gaineko iritzia...

Urtarrilak 14-21

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa** deitu du Udalak. 50 x 70 cm-ko kartel bertikalekin parte har daiteke. Derrigorreko testua da *2005 Haratuzteak Arrasate*. Lanak entregatu behar dira Udal Kultura sailera urtarrilaren 17a baino lehen. 360 euroko saria banatuko dute.

BERGARA

► **SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketa** parte hartzeko epea zabalik dago urtarrilaren 15a arte, zapatua. Lagun bakoitzak mezu bakarria bidali ahal izango du 605 71 24 69 telefonora edo kulturajardun@topagunea.com helbide elektronikora. Mezua ostean, sakelako telefonoaren zenbakia eta adina jarri behar dira. Saria da 90 euro. Jardun elkarteak antolatzen du.

► **XV. Kirol materialak euskaraz sortzeko beka** deialdia egin dute. Aurtuko, kirol egokituaren eta gimnasia txirridularitzaren gaineko fitxak egiteko bekak emango dituzte. Eskabideak Bergarako Udal Kirol Zerbitzuan egin behar dira, urtarrilaren 30a baino lehen. Argibideak: www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz.

DEBAGOIENA

► **41. Artista Berrien Lehiaketa** deitu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak. 35 urtetik beherako gipuzkoarrek parte har dezakete, ikus-arteetako edozein motatako lanekin. Mugaeguna da urtarrilaren 28a. 7.500 eta 3.000 euroko sari bana emango dute. Argibideetarako, deitu 943 48 27 52 telefono zenbakira.

MUSIKA

ARRASATE

► **Musikene Haize Ensemble** taldeak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian, 20:00etan.

► **Izaera, Neubat eta Sharon Stoner** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA

► **Organo Erromantikoaren Nazioarteko VI. Zikloaren** barne, Azkoitiko parrokiako abesbatza, Azpeitiko Julian Barrenetxea abesbatza eta Jose Luis Frantzesena organo-jotzailearen emanaldia izango da bihar, zapatua, San Pedro parrokiak, 20:00etan. Datozen egunotan ziklo honetako emanaldi gehiago egongo da.

► **Obligaciones (Gasteiz) eta Motocross (Benidorm)** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

ELGETA

► **Polito Ibañez** musikari kubatarak *Axilas* diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 22:30ean.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Maite Franco ipuin kontalariak** emanaldia egingo du bihar, zapatua, liburategian, 18:00etan.

► **Sahararrei bidaltzeko produktuak** biltzen dihardute astelehena arte, hilak 17. Eroskin, herri ikastetxean, Juanitarenean eta udaletxean ipini dituzte Anelkarrekoek produktuak uzteko kaxak. Azukrea, atuna eta konpresak behar dituzte.

ARETXABALETA

► **Zeharkaldiko eski irteera** antolatu du Murruxiko taldeak urtarrilaren 22 eta 23rako. Izenematea zabalik dago euren bulegoan, 19:00-20:00 orduetean, urtarrilaren 18ra bitartean.

ARRASATE

► **Musakolako igerilekuak** itxita egongo dira bihar, zapatua, igeriketa txapelketa bat dela eta. Egun horretako ordutegia izango da 16:00-20:00.

► **Mendi eski irteera eta ikastaroa** antolatu ditu Besaide elkarteak hilaren 22 eta 23rako, asteburua, Portaleten (Formigal). Derrigorrezkoa da federatuta egotea eta oinarriko biraketak egiten jakitea. Izena emateko, jo euren egoitzara hilaren 17tik 19ra bitartean.

► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte hilaren 19an, eguztena, anbulatorioan, 16:30-20:00 orduetean. Beste bi aukera izango dira hil honetan, 26an eta 27an hain zuzen ere, leku eta ordu berean.

BERGARA

► **Bergarako Elementalaren historiaren** gaineko liburua doan eskuratu ahal izango dute ikastetxeko ikasle ohi guztiek, Ibargarai kaleko egoitzan, 08:00-22:00. Gorka Etxabek idatzi zuen liburua.

► **56an jaiotakoek** batera afaltzeko aukera dute urtarrilaren 29an, zapatua, Zabala jatetxean. 19:30ean bilduko dira

frontoian; gero, talde-argazkia atera eta afaltzera joango dira. Izena emateko, jo Zabala jatetxera (943 76 20 07) urtarrilaren 23a baino lehen.

ESKORIATZA

► **Hainbat eski irteera** antolatu ditu kirol elkarteko mendi sailak, honakoak: urtarrilak 15-16, Luz Ardidenera; otsailak 12-13 eta martxoak 5-6, zehaztu gabeko eski estazioetara; eta martxoak 24-28, Andorrrako Gran Valira estaziora. Izena emateko edo argibideetarako, jo Namaste dendara edo deitu 943 71 43 27 zenbakira.

OÑATI

► **Odol-ateratzea** deitu dute herriko odol emaleek gaurko, egubakoitza, Txantxiku ikastolan, 18:00etan.

► **Ipuinaren beharra haurren behar psikoafektiboa lantzeko** delako hitzaldia, abenduaren 14an egitekoa zena, urtarrilaren 18an, martitzena, izango da, Errekalde herri eskolan, 18:00etan. Juan Carlos Alonso izango da hizlaria.

► **Aratusteetan dantza egiteko** entseguak hasi dituzte Oñatz dantza

taldekoek. Iaz bezala, Jauziak ikuskizuna egingo dute kaleetan barrena, eta parte hartu gura duten 14-15 urteko herritar guztiek zabalik dituzte ateak. Entseguak dira martitzenetan, 20:00etan, eta zapatuetan, 12:00etan, Errekalde herri eskolaren egoitzan duten lokalean.

► **Suradesa zerbitzuko teknikaria** martitzenetan izango da aurrerantzean udaletxean. Hain zuzen, 09:45etik 13:00etara bitartean izango da han. Etxebizitzak erosteko edo konpontzeko Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzen berri ematen du.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak** hainbat ikastaro antolatu du: gestalt tailer esperientziala eta meditazio ikastaroa, batetik. Izenematea zabalik dago 616 96 57 95 telefono zenbakian. Azkenik, biodantza tailerra ere antolatu dute. Azken horretarako, deitu 679 44 12 29 telefonora.

ARRASATE

► **Yoga, gorputz eta burua integratzeko teknika, eta masaje ikastaroak** deitu ditu Arrasateko Yoga Elkarteak. Argibideetarako, deitu 943 79 20 85 edo 943 79 66 98 telefono zenbakietara.

BERGARA

► **Umeekin jolasten ikasteko** bi tailer antolatu ditu Udal Euskara Zerbitzuak. Zaintzaile eta begiraleei ere zabalik daude. Jolas eta kantu ikastaroak astean ordu eta erdiko zortzi saio izango ditu eta otsailaren 10ean hasiko da; ipuin ikastaroa, berriz, apirilaren izango da. Izenematea Udal Euskara Zerbitzuan egin behar da hilaren 21a baino lehen.

► **Reikiaren inguruko ikastaroa** dago Eibarren, eta Bergarako jendearekin ere taldea osatu gura dute. Urtarrilaren 23an izango dira eskolak, 11:00-13:00 eta 16:00-19:00. Izena emateko, deitu 943 12 71 56 edo 660 08 47 34 telefono zenbakietara.

OÑATI

► **Giza harremanetarako trebezia eta komunikazio onerako urratsen** gaineko ikastaroa emango du Lahar taldeak hilaren 17tik 21era bitartean kultura etxean, 17:00-20:00 orduetean. Batez ere, gizarte arloko taldeetako langileei dago zuzenduta. Izena emateko, deitu 943 47 41 82 edo 665 71 86 95 telefonoetara.

► **Informatika ikastaro berriak** antolatu ditu KZGuneak hil honetarako. Tartean, Interneteko oinarriko ikastaroak eta mikroenpresendako ikastaroak daude. Izenematea KZGunean egin behar da (943 71 83 20 da telefono zenbakia).



► KONTZERTUAK

MUSIKA BIKAINA ETA SORPRESA ASKO GAUR, DANBAKAKO FINALEAN

Ezuste atseginez josita dator egubakoitz gaua Elgetako Espaloia antzokian pasatzea erabakitzen dutenendako. Han jokatuko da Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketako finala. Potemkin, Sharon Stoner (Oñati) eta Muted (Arrasate-Abadiño) finalistek 45 minutuko emanaldi bana egingo dute, eta horren arabera aukeratu dute irabazlea. Hura zein den han bertan jakinaraziko du epaimahaiak. Irabazlearen izena jakin aurretik itxaronaldia gozatuko du Split77 musika talde deustuarrak, gaueko gonbidatu bereziak. Baina, horrez gain, sorpresa polit asko egongo dira gau berezi honetan Espaloira joaten direnendako. Finalaren gaineko nondik norako guztiak *Astelehenero Goienkaria*-n jasoko dituzue, urtarrilaren 17an.

Non: Elgetan, Espaloia antzokian. **Noiz:** gaur, urtarrilak 14, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean. **Sarrera:** bertan, 3 euro.

Zinema

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Adur, adur, ez naiz hire beldur** delako beldurraren gaineko aretoa dago zabalik Monterron kultura etxean, urtarril osoan. Astelehenetik egubakoitzera dago zabalik, 18:00-20:00 ordutegian.

► **Begoña Garaizabal** margolariaren erakusketa bisitatzeko aukera dago Iturriotz kaleko Harresi aretoan hilaren 23ra bitartean, honako egunetan: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jai egunetan, horrez gain, baita 12:00-14:00 ere.

BERGARA

► **Sahararen inguruko argazki** erakusketa zabaldu dute Komite Internazionalistek. Hilaren 19ra bitartean duzue ikusteko aukera kultura etxean, astelehenetik egubakoitzera bitartean 18:00-21:00, eta zapatu eta jai egunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

GASTEIZ

► **Pello Alberdi margolari elgetarraren** lanak erakusketan daude Felisa Navarro aretoan, astelehenetik zapatu bitartean. Bisita ordutegia honakoa da: egunero, 17:00-21:00.

OSPAKIZUNAK

BERGARA

► **San Anton jaiak** ospatuko dituzte auzo horretan asteburu osoan eta astelehenean. Zapatuan eta domekan, etxafuegoak, mus txapelketa, auzo afaria, meza, 27. Kros Txapelketa... izango dira. Astelehenean, San Anton egunean, Anton Deunaren baselizara igoko dira eta eliztarrek eskaintza egingo dute; eta 11:00etan, ospakizunak bukatzeko, meza nagusia eta luntxa izango dituzte.

IKUSKIZUNAK

ELGETA

► **Txina, dragoia ernatzen delarik** izeneko diapositiba emanaldia egingo du Jon Abril kazetariak egunean, hilak 20, Espaloia kafe antzokian, 20:00etan, Txinara egin zuen bidaiaren berri emateko.

ARAMAIO

■ KULTURA ETXEA

Primavera, verano, otoño, invierno... y primavera
Egubakoitza: 22:30.

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

¿Bailamos?
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Los increíbles
Domeka: 17:00.

La feria de las vanidades

Eguena, zinekluba: 20:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ NOVEDADES

María, Ilena eres de gracia
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 22:15.
Astelehena: 19:30.

Polar express
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

La historia del camello que llora
Eguena, zinekluba: 20:00.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ ESPALOIA

Shrek
Domeka: 17:30.

Lágrimas del sol
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ KULTURA ETXEA

Taxi: derrape total
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

La vuelta al mundo en 80 días
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Zatoichi
Eguena, zinekluba: 20:00.
Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ UNZAGA

Alejandro Magno
Egubakoitza: 19:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 21:00.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ RIALTO

Luna de Avellaneda
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ GURIDI

Alejandro Magno
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 21:00.
Domeka: 17:00, 20:30.

Los increíbles
17:00, 19:45.

14 días de vida
17:30, 20:00, 22:30.

Bridget Jones: sobreviviré
22:30.

El aviador
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 21:15.

Obsesión
17:00, 19:45, 22:30.

Ocean's twelve
22:30.

Lemony Snicket
17:30, 20:00.

Polar express
17:00.

El fantasma de la ópera
18:45, 22:00.

■ MIKELDI ZINEMAK

Mar adentro
17:15, 20:00, 22:30.

Ocean's twelve
17:30, 20:15, 22:45.

Los increíbles
Zapatua eta domeka: 17:15.

Frio sol de invierno
17:30, 20:15, 22:45.

La importancia de llamarse Ernesto
20:15, 22:45.

El cónsul Peralasca
17:30, 20:15, 22:45.

La búsqueda
17:20, 19:50, 22:35.

2046
17:15, 20:00, 22:30.

Sebastian
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

Luna de Avellaneda
19:30, 22:30.

Lemony Snicket
Zapatua eta domeka: 17:15.
Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Los chicos del coro
17:30, 20:00, 22:30.

Después de medianoche
17:30, 20:00.

Whisky
17:00, 19:45, 22:30.

Temporada de patos
17:30, 20:00, 22:30.

El maquinista
22:30.

Sólo un beso
17:30, 20:00, 22:30.

Conversaciones con mamá
17:00, 19:45, 22:30.

La importancia de llamarse Ernesto
17:00, 19:45, 22:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Ocean's twelve
16:30, 19:20, 22:00, 00:45.

Polar express
16:00, 18:15.

El aviador
15:45, 18:40, 21:35, 00:30.

Las novias de mi novio
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Los increíbles
15:50, 18:05, 20:30, 22:45, 01:00.

Alejandro Magno
16:00, 19:30, 23:00.

Obsesión
16:30, 19:20, 22:00, 00:45.

Ong Bak
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Taxi: derrape total
20:30, 22:45, 01:00.

La búsqueda
22:00, 00:40.

Sky captain
16:45, 19:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Los increíbles
12:15, 16:00, 18:30, 21:00, 23:30.

Polar express
12:15, 16:25, 18:25, 20:25.

El mensajero del miedo
22:30.

Ocean's twelve
12:15, 16:30, 19:00, 21:45, 00:15.

El aviador
12:15, 16:30, 20:00.

El fantasma de la ópera
22:30.

Alejandro Magno
12:15, 17:00, 20:30, 00:00.

Bridget Jones: sobreviviré
12:15, 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.

Ong Bak
18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Obsesión
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Taxi: derrape total
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Dos hermanos
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:20, 20:30.
Domeka: 12:15, 16:10.

Una Navidad de locos
12:15, 16:10, 18:10.

El lobo
20:10, 22:25, 00:45.

Lemony Snicket
12:15, 16:00, 18:10, 20:20.

El niño que quería ser un oso
12:15, 16:35.

Supertramps
12:15, 16:20.

Sky captain
18:00, 20:05, 22:10, 00:20.

La búsqueda
